



---

# NAFARROAN HERIOTZAK ERAGIN DITUZTEN ETA-REN ATENTATUEN EGOERA PROZESALA

---

IGNACIO ÁNGEL  
PÉREZ MACÍAS

---

TXOSTENA  
2019

**ARGITARATZAILEA:**

Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra  
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua  
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Horixe Diseño

**L.G.** NA 513-2019



---

# **NAFARROAN HERIOTZAK ERAGIN DITUZTEN ETA-REN ATENTATUEN EGOERA PROZESALA**

---

**IGNACIO ÁNGEL  
PÉREZ MACÍAS**

---

**TXOSTENA  
2019**



**«Erru edo errugabetasun indibidualaren auzia,  
akusatuari zein biktimari  
justizia egitea:  
horixe da auzitegi kriminal baten xede bakarra»**

**HANNAH ARENDT**

*Eichmann Jerusalem.  
Gaizkiaren hutsaltasunari buruzko azterlan bat (1963)*

# AURKIBIDEA

1. ATARIKOA .....	7
1.1. HELBURUA .....	7
1.2. METODOLOGIA .....	7
1.3. IRISMENA .....	8
1.4. EGILEARI BURUZ .....	8
2. AUZIAREN EGOERA .....	9
2.1. TXOSTEN OFIZIALEN PROBLEMATIKA .....	9
2.2. KONSULTATUTAKO ITURRIEN KONTAKIZUNA .....	9
A) ABIAPUNTUA .....	9
B) AUZITEGI NAZIONALEKO TERRORISMOAREN BIKTIMEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEKO BULEGOARI ESKATUTAKO DATUAK .....	10
C) AUZITEGI NAZIONALEKO GOBERNU BATZARRAREN AKORDIOA .....	10
D) ATENTATU TERRORISTEN EGOERA PROZESALARI BURUZKO INFORMAZIO-ESKAERAK IZAPIDETZEA AUZITEGI NAZIONALEAN .....	10
E) AUZITEGI NAZIONALEKO FISKALTZARI ESKATUTAKO INFORMAZIOA: ESKABIDEA ETA EMAITZA .....	10
F) KONSULTATUTAKO ITURRIEN ERABILERA .....	10
2.3. AIPAMEN LABUR BAT «ARGITU GABEKO KASUAK/EBATZI GABEKO KASUAK» TERMINOAREN ERABILERARI BURUZ .....	11
A) PLANTEAMENDUA .....	11
B) KASUAK .....	12
C) LABURPEN GISA .....	15
3. EGOERA PROZESALEK BIKTIMEN ESKUBIDEETAN DITUZTEN ONDORIOAK .....	16
3.1. JUSTIZIARAKO ETA KALTE-ORDAINERAKO ESKUBIDEA .....	16
A) JUSTIZIA .....	16
B) KALTE-ORDAINAK .....	17
3.2. EGIARAKO ESKUBIDEA .....	17
A) EGIARAKO ESKUBIDEA ARAUTZEA .....	18
B) EGIARAKO ESKUBIDEA ETA ZIGOR-PROZEDURAK .....	19
4. EGIARAKO ESKUBIDEARI BURUZKO GOMENDIOAK .....	20
5. ETA-K NAFARROAN EGINDAKO HILKETA TERRORISTEN EGOERA PROZESALAREN LABURPENA .....	21
A) OINARRIZKO DATUAK .....	21
B) ERABILITAKO TERMINO JURIDIKOEN GLOSARIO LABURRA .....	21
C) «ARGITZE JUDIZIAL MOTARI» ETA ATENTATUEN ARDURADUNEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK .....	22
D) LABURPEN-KOADROA .....	24
6. BIBLIOGRAFÍA/ITURRIAK .....	28
7. ERANSKINA. AZTERTUTAKO EBAZPENEN ZERRENDA .....	30
1) AUZITEGI NAZIONALAREN EPAIAK .....	30
2) BEHIN BETIKO LARGESTEKO AUTOAK .....	31
3) BEHIN-BEHINEKOZ LARGESTEKO AUTOAK .....	31
4) BESTE EBAZPEN BATZUK .....	31

# 1. ATARIKOA

9/2010 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko terrorismoaren biktimei laguntzekoak, honako helburu hau dauka: «omenaldia egitea eta aitortzen handiena adieraztea ekintza terroristak pairatu dituztenei oro har eta, Nafarroan zehazki, ETaren terrorismoaren biktimei». Legeak arreta eta laguntza integrala eskaintzeko sistema bat ezarri zuen, tankera guztietako kalteak erreparatzeko eta arintzeko. Xede horrekin, jarduera multzo bat ezarri zuen, autonomia-erkidego batek bere gain har ditzakeen eskumenen esparruan.

Lege hori, halabeharrez, Estatuko 29/2011 Legearekin dago lotuta, terrorismoaren biktimak aintzates-teko eta haiei babes integrala ematekoarekin. Terrorismoaren biktimek memoria, duintasuna, justizia eta egia hartzen dituzte aintzat arau-dispositibo hori oinarritzeko «indar-idea» gisa, finean biktimaren aintzatespen osoa bilatzeko.

## 1.1. HELBURUA

Azterlan honen helburua honako hau da: ETak eragindako hildakoak dituzten zigor-prozeduren egoerari buruzko informazioaren ondorioak aurkeztea, betiere Nafarroako Foru Komunitatearekin lotuta daudenak<sup>1</sup>. Batez ere Auzitegi Nazionalak emandako datu ofizialak eskainiko dira, iragana argitzen eta memoria –indibiduala zein kolektiboa– eraikitzen laguntzeko asmoz. Finean, dokumentu honen asmo nagusia ETaren biktimak erreparatzeko ekarpena egitea da, «egiarako eskubidea» oinarri hartuta; horretarako, egiazko gerturatzea baliatuko da, kontrastatua, eta, aldi berean, gizartean errealitate honi buruzko kontzientzia pizten lagunduko duena.

Horretarako, proposatu zen jakitea zer prozesu dauden amaituta epai irmoz eta zer prozesu ari diren oraindik ere izapidetzen bide judizialean. Hori hala izanik, nolabait lagundu nahi da biktimek duten eskubide bat, «euren biktimizazioa eragiten duten kausei buruzko eta giza eskubideak urratzen dituzten kausei zein baldintzei buruzko informazioa eskuratzekoa, baita egia jakitekoa ere» (60/147 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiarena).

## 1.2. METODOLOGIA

Honako metodologia hau baliatu da: 1) batez ere Auzitegi Nazionalako Terrorismoaren Biktimei Informazioa eta Laguntza emateko Bulegoak emandako txostenetako dokumentuen azterketa; 2) Auzitegi Nazionalako instrukzio-epaitegi zentralek formatu digitalean emandako sumarioak aztertzea eta berrikustea; 3) emandako ebazpen judizialeko datuak alderatzea eta aztertzea (batez ere, epaiak eta autoak); 4) bibliografia espezializatua aztertzea, nagusiki elkarten, fundazioen, organo judizialen eta ikertzaileen txostenak.

2017ko azarora bitarteko datuak baliatu dira, Auzitegi Nazionalako Terrorismoaren Biktimei Informazioa eta Laguntza emateko Bulegoak prestatutako dokumentu-txostenarekin bat. Bereziki eskertzen dugu bulego horretako funtzionarioen lana eta profesionaltasuna.

<sup>1</sup> Argitalpen honen oinarria «Heriotzak eragin dituzten eta Nafarroako Foru Komunitatearekin loturik dauden atentatu terroristen egoera prozesalari buruzko azterketa» da, Nafarroako Gobernuako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak 2017an eskatua.

### **1.3. IRISMENA**

Argitalpen honetan, ETA talde terroristak egindako hilketen aurkako prozesuen egoera jorratzen da, dela Nafarroan izandakoena, dela Foru Komunitatetik kanpo gertatu baina Nafarroarekin lotutako herriarrei eragiten dietenena.

### **1.4. EGILEARI BURUZ**

Azterlan hau Ignacio Ángel Pérez Macías Zuzenbideko doktoreak egina da. 2005-2011 aldian, Pérez Macías aholkulari izan da Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Goi Komisariotzan eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusian, Espainiako Gobernuko Barne Arazoetako Ministerioan. Gaur egun, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle elkartu ez ezik, Oinarrizko Eskubideei buruzko onlineko Masterraren zuzendariorde ere bada Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatearen Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Institutuan. Horrez gain, jarduneko abokatua da. Halaber, lankidetzan dihardu terrorismoaren biktimekin lotutako hainbat fundazio eta elkarterekin. Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarteko ohorezko bazkide da.



## 2. GAIAREN EGOERA

Azken urteotan, «argitu gabeko atentatu terroristen arazo» deitu izan den auziak toki nabarmena hartu du biktimen eta biktimok ordezkatzeko dituzten kolektiboen aldarrikapenetan. Horien artean nabarmen-tzen dira, besteak beste, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa (FVT, gaztelaniazko siglen arabera), Terrorismoaren Biktimen Elkarte (AVT, gaztelaniazko siglen arabera) eta Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa (COVITE,). Txostenak prestatu dira, liburu monografikoak argitaratu, eta problema-tika hau barneratu da haien diskurtsoetan, komunikatuetan eta eskarrietan.

Fiskaltzak eta Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimei Informazioa eta Laguntza emateko Bule-goak, bestalde, sumarioak argitzen eta berriro irekitzen lan egin dute bereziki. Egiteko horrekin parale-loan, beste administrazio publiko batzuk kezkatuta agertu dira gai horri buruz. Herriaren Defendatzai-leak, konparazio batera, arazo honi heldu zion 2016an egindako txosten batean.

### 2.1. TXOSTEN OFIZIALEN PROBLEMATIKA

Terrorismoaren biktimei Espainian eskainitako laguntza nazioarte osoko eredurik aurreratuenetakoa da. Lege-erregulazio zabala dago kalte-ordainen, laguntza publikoen eta kondekorazioen alorreko auziei buruz. Alabaina, lege-gabezia nabari da txosten ofizialen informazioari eta argitalpenari buruz. Ez da erraz eskuratzen informaziorik eta argitalpenik, Espainian gertatutako ekintza terroristei buruzko datu estatistikoak eta txosten ofizialak jasotzen dituenik.

Legegileek ez dute bereziki landu txosten ofizialen erregulazioa, hain zuzen ere, hildakoen kopurua, zau-rituak eta erasotuak, eragindako kalte materialei buruzko zenbakien argitalpenak eta tankera horreta-ko datuak biltzen dituztenena. Auzi honetan aurrera egiteko bidea izan liteke terrorismoaren biktimen egoerari buruzko txostenen prestateta arautzen duen 29/2011 Legearen 63. artikulua (aurrerantzean, Osoko Babesaren Legea), baina formula oso epela da, eta, orain artean, administrazioak ez du sekula bu-urutu. Hori hala izanik, Espainian terrorismoaren fenomenoari buruzko edozer azterlanek edo ikerketak nolabaiteko ziurgabetasuna izango du, baita datu ofizialen gabezia ere.

Hori dela eta, ez daiteke hitz egin «datu ofizialei buruzko desadostasunaz». Adostasunik eza baino gehia-go, informaziorik eza da nagusi –ez baitago, behinik behin, ofizialki argitaratutako daturik-. Auzitegi Na-zionaleko Fiskaltzak *ad hoc* prestatutako txostenetan ageri dira gehientsuenak. Gure kasuan, biktimen elkar-teetako ordezkarien bidez eskuratu ahal izan ditugu txosten horiek.

Espainian ez dago datu estatistikook argitaratzeari buruzko legerik; hori dela eta, kasuz kasu molda-tu behar da, Auzitegi Nazionaleko Informazio Bulegora jota. Halaxe gertatu zen Eusko Jaurlaritzak eta Arartekoak egindako txostenarekin, eta, azterlan hau taxutzeko ere, tankera bereko zailtasunak izan ditugu parez pare.

### 2.2. KONTSULTATUTAKO ITURRIEN KONTAKIZUNA

#### A) ABIAPUNTUA

Abiapuntu irmoa eta ziurra izan da Javier Marrodán Ciordiak eta Laura Fernández Fernándezek eginda-ko lana, «*Nafarroan 1972-2008 bitartean izandako terrorismoaren biktimei buruzko txostena*», Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskatuta prestatua. Egileek ohartarazten dutenez, «informazioa batez ere Nafarroako Gobernuak 2012 eta 2015 artean sustatutako eta finan-

tzatutako *Relatos de plomo* (Berunezko kontakizunak) proiektuaren hiru bolumenetatik hartua da. Era berean, hemerrotekara, hainbat liburutara eta sare sozialetara ere jo da, ikerketa-lanetarako».

#### **B) AUZITEGI NAZIONALEKO TERRORISMOAREN BIKTIMEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEKO BULEGOARI ESKATUTAKO DATUAK**

2017ko uztailean, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskabide bat aurkeztu zion Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimei Informazioa eta Laguntza emateko Bulegoari, hain zuzen ere, jakiteko zer egoeratan zeuden ETA talde terroristak Nafarroako Foru Komunitatean egindako eta hildakoak eragindako atentatu terroristen aurkako prozesuak. Eskabidearekin batera, lehen aipatu dugun «*Nafarroan 1972-2008 bitartean izandako terrorismoaren biktimei buruzko txostena*» atxiki zen. Kudeaketa-bide hori osatzeko, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Auzitegi Nazionaleko presidenteari egindako eskabidea ere gehitu zen.

#### **C) AUZITEGI NAZIONALEKO GOBERNU BATZARRAREN AKORDIOA**

Auzitegi Nazionaleko Gobernu Salak honako hau adostu zuen 2017ko uztailearen 27an: «Informazio-eskaera jurisdikzio-organo bakoitzari egin behar zaio, eta esandako organo horien justizia-administratioko abokatuen bidez bideratu behar da; haiek hartuko dute erabakia, kasuan-kasuan bideratutako eskaera aintzat hartuz eta ebazpena indarrean den araudiaren arabera ebatziz».

#### **D) ATENTATU TERRORISTEN EGOERA PROZESALARI BURUZKO INFORMAZIO-ESKAERAK IZAPIDETZEA AUZITEGI NAZIONALEAN**

2017ko azaroaren 17an, Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimei Informazioa eta Laguntza emateko Bulegoak eskatutako informazioa entregatu zuen. Hala, zerrenda bat eman zen, *Nafarroan aitortutako hildakoak* eta *Beste autonomia-erkidego batean atentatuz hildako nafar jatorrikoak* izenburukoa, 14 folioz osatua, baita dokumentu-dosier zabal bat ere, ebazpen judizialekin, batzuk inprimaturik eta beste batzuk, berriz, CD-ROMean, informazio digitalizatuarekin.

Bulegoak jakinarazi zuen ez zituela entregatzen eskatutako dokumentu guztiak, jurisdikzio-organo batzuek ez baitzuten eman horretarako baimena; zehazki, instrukzioko 4. epaitegi zentralak.

#### **E) AUZITEGI NAZIONALEKO FISKALTZARI ESKATUTAKO INFORMAZIOA: ESKABIDEA ETA EMAITZA**

Zuzendaritza Nagusiak, era berean, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak egindako txosten baten kopia eskatu zuen: *Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak 2011n egindako txostena, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak eskatua, ETak 1960 eta 2010 artean hildako 349 lagun zerrindari buruzkoa* izeneko txostenarena. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen baten bibliografiari esker izan zen txosten haren berri.

Zoritzarrez, orain-oraingoz, eskabideak ez du erantzunik jaso.

Fiskaltzaren 2017ko urtarrilaren 16ko txosten horren kopia bat Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Plataformako (APAVT) presidenteak eman digu. Bereziki eskertzen dugu eskainitako laguntza. Dokumentuak 36 orri ditu: testu nagusia, sei ondorio eta hiru eranskin, taula-itxurakoak.

#### **F) KONTSULTATUTAKO ITURRIEN ERABILERA**

Horrenbestez, honako iturri hauek kontsultatu ditugu ETak Nafarroan egindako hilketa terroristen aurkako prozesuen egoera jakiteko:

- **Lehenik eta behin**, «*Nafarroan aitortutako hildakoak*» eta «*Beste autonomia-erkidego batean atentatuz hildako nafarrak*», 2017ko azaroaren 17koak, Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoak eginak.

- **Bigarrenik**, formatu digitalean entregatutako kausa guztien kontsulta.
- **Hirugarrenik**, Auzitegi Nazionaleko bulegoak inprimatuta entregatutako epai eta auto guztien kontsulta.
- **Laugarrenik**, «Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak 2011n egindako txostena, Terrorismoaren Biktimen Fundazioak eskatua, ETAk 1960 eta 2010 artean hildako 349 lagunen zerrendari buruzkoa», 2017ko urtarrilaren 16an eguneratua.
- **Bosgarrenik**, zalantzak eta desadostasunak diren kasuetarako, «1960. eta 2014. urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua» txostena kontsultatu da, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2014ko abenduan argitaratua.

## 2.3. AIPAMEN LABUR BAT «ARGITU GABEKO KASUAK / EBATZI GABEKO KASUAK» TERMINOAREN ERABILERARI BURUZ

### A) PLANTEAMENDUA

Adierazi dugun moduan, «argitu gabeko» edo «ebatzi gabeko» atentatuen auzia bihurtu da biktimen eta biktimok ordezkatzan dituzten kolektiboan aldarrikapenik garrantzitsuenetako bat. Ez da, ordea, gaurko kontua, ezta asmo berria ere.

Azterlan honetan, hausnarketa berezia egin dugu termino horri buruz. Zer gertatu den jakitea biktimen eta haien familien desio pertsonala da: gertakarien xehetasunak jakiteko beharra daukate, egileak identifikatzekoa, are gehiago, jakitekoa terroristek zergatik hautatu ote zituzten atentatuen xede gisa. Biktimen elkarteek eta fundazioek lehentasuntzat dute egiteko hori.

Baina arazo hori ez daiteke mugatu biktimen nahi hutsera; aitzitik, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen funtsezko egiteko izan behar du, baita organo judizialena eta Fiskaltzarena ere, zuzenbide-estatu batean. Espainian, hasiera batean, terrorismo-ekintzak Ordena Publikoko epaitegien eta auzitegien eskumen izan ziren, jurisdikzio militarra haietaz arduratetik inhibitzen zenean. 1977tik aurrera, Auzitegi Nazionala eta hari atxikitako Fiskaltza arduratzen dira delitu horiek epaitzeaz. Finean, atentatuak ikertzea eta argitzea oinarrizko auzia da, funtsezkoa, terrorismo-ekintzen biktimei justizia bermatzeko.

Egia eta justizia batera doaz biktimen nahian, bai eta organo judizialen eta Fiskaltzaren egitekoan ere. Ekintza argitzeak, halaber, oso modu esanguratsuan eragiten du egindako kaltearen erreparazioan; izan ere, zerikusi zuzena du kalte-ordainaren luze-zabalean, zeina, Espainiaren kasuan, Estatuak hartzen baitu bere gain.

Ekintzok guztiak argitzeak baldintzatzen du kalte-ordainaren zenbatekoa. Zigortzeko kondena-epairik ez duten atentatuen kasuan, lege-baremoetan zehaztutako gutxienekoak aplikatzen dira. Aldiz, atentatuaren edozer egile kondenatzen den kasuetan, epaiak finkatzen duena jasotzen dute, legeak aurreikusitako gehienekoraino.

Terrorismoaren biktimak babesten dituzten legeek kalte-ordainaren arteko desberdintasunak ezabatzea dute xede, bai eta asistentzia-, kondekorazio- eta laguntza-prestazioen zerrenda zabal bat bideratzea ere, kasu guztietan berdin jokatuz. Hala eta guztiz ere, alde nabarmenak ageri dira, oraindik ere, kalte-ordainaren zenbatekoetan, prozesu penalen arrakastak edo porrotak baldintzatuta. Alde horiek gaintzea da, hain justu, biktimen elkarteek legeria aldatzeko egiten duten proposamenetako bat. Hori hala, Herriaren Defendatzaileak lege berria prestatzeko gomendioen artean bildu du. Bide horri jarraikiz, Barne Arazoetako Ministerioa araudi-proiektu berri bat lantzen ari da.

**B) KASUAK**

Puntu honetara iritsi ostean, ezinbestekoa iruditzen zaigu zehaztea zer diren «argitu gabeko» eta «ebatzi gabeko» atentatuak. Azterlan honen tesia da termino lauso samarra dela, biktimen diskurtso bereziki aldarrikatzaile baten ingurumarian sortua, eta egoera oso desberdinak biltzeko edo izendatzeko balio izan duela. Kolektiboaren barruan, haien ordezkarien eta bozeramaileen artean, indartuz-indartuz joan den terminoa da. Neurri handi batean, sarturik dago literaturan, diskurtsoetan, albisteetan, baita elkar-teen eta fundazioen programetan edo proiektuetan ere. Inoiz edo behin, termino horiek erabiltzea eroso egiten zaio eragile juridikoari, oso termino zabaldua eta arrunta izaki.

Honako egoera hauetan agertu izan dira maizen «argitu gabeko atentatu» edo «ebatzi gabeko atentatu» terminoak:

**1) Ebazpen administratiboekin bakarrik egiaztatzen diren atentatu terroristetan**

Bada ideia oker bat, Espainiako administrazioak baduela prozedura autonomo bat inor terrorismoaren biktimatzat hartzeko. Espainian egiaz existitzen dena zera da, indarkeria terrorista jasan duten pertsonen aldeko prestazio jakinak aitortzea, dela zuzenean jasan dutenen alde, dela kaltetunarekin ahaide-tasun-lotura edo lotura afektiboa dutenen alde. Ez dago prozedura berezirik, inor terrorismoaren bik-tima izendatzeko helburu bakarra duenik. Administrazioak, indarrean den legeria aplikatuz, aitortzen du hainbat pertsonak eskubidea dutela prestazio jakin batzuk eskuratzeko. Prestazio horiek ekintza terroristen ondorioak jasan izanarekin lotzen dira.

Terrorismoaren biktima, horrenbestez, administrazio-bidetik aitortzen da, prestaziook onartzen dituz-ten ebazpenen bidez. Eskuarki, aldeak hala eskatuta lortzen dira, eta honako prestazio hauek ematen dituzte: Estatuaren ordain solidarioak, mediku- edo ikasketa-laguntzak; eta kondekorazioak (ofizioz ekitea ahalbidetzen duen kasu bakarra, Osoko Babesaren Legearen 54. artikulua araberera). Hartara, Espainiako administrazioak emandako ebazpenek balio izaten dute «egiaztatzeko» terrorismoaren on-dorioak jasan dituela. Ebazpen horiek oso desberdinak izan litezke edukiari dagokionez, aitortzen den prestazioaren arabera izaten baitira.

Gaur egun, administrazio-ebazpenak atentatu terroristaren datatik hurbil lortzen dira; izan ere, inda-rrean den laguntza-sistemak berehala ematen du zaintza. Ebazpena gehienez ere 12 hilabeteren ba-rruan jakinarazten da (Osoko Babesaren Legearen 28.6 artikulua araberera), eskubidea aurkezten de-netik aurrera.

Ebazpenik paradigmatikoa kalte-ordainak aitortzen dituen da, aurreikusten baitu Estatuak aurrera-pen solidario bat ematea, alde aurretik lagata terrorista erantzuleen aurrean egikaritzea legokiokeen erantzukizun zibileko egintza. Kalte-ordainen aurrerapen hori lege aurreikusitako mugaraino gauza-tzen da (Osoko Babesaren Legearen 20.4 artikulua araberera), baldin eta erantzukizun zibila aitortzen duen zigortzeko kondena-epairik baldin bada, terrorismo-delitutik eratorrita. Kasu horretan, bigarren ebazpen administratibo bat emango da, ordaindutakoaren eta epaileak zehaztutakoaren arteko alde ekonomikoa berdintzeko (edo, hala dagokionean, ordaindutakoaren eta lege-baremoaren artekoa).

Zigortzeko kondena-epairik ez dagoen bitartean, biktimek ebazpen administratiboek bidez bakarrik egiaztatu ahalko dute atentatu terroristak jasan dituztela (kalte-ordainak, pentsioak, laguntzak, konde-korazioak eta halakoak jasotzeko ebazpenen bidez).

**2) Absolutio-epaia duten atentatu terroristak**

Biktimek inor zigortzen duen kondena-epairik eskuratzen ez duten kasuak. Izan da pertsona jakin ba-tzuen kontrako prozesu penal bat, baina emandako epaiak ez du inor kondenatzen egile edo konplize gisa (frogarik ez delako edota prozedura-arauak direla eta).

Kasu honetan, terrorismoaren biktimaren izaera administrazio-bidetik bakarrik aitortzen da, prestazioak onartzen dituzten ebazpenen bidez. Biktimek ez dute epai judizialik izango; izan ere, eskudun den auzitegiak (Espainiaren kasuan, Auzitegi Nazionalak) irizten dio ekintza jakin batzuk ez daudela frogatuta eta ez dutela merezi terrorismo-delituen kalifikazio juridikoa. Eta, horrenbestez, prozesatuak ez zituzten epaitu, eta ez dago erabaki judizialik, biktimen eta haien familien kalte-ordainei dagokienez.

Bada beste ideia oker bat ere: gauza bera direla «absoluzio-epaia» eta «argitu gabeko edo ebatzi gabeko atentatuak». Eta ez da hala. Atentatu terrorista bat amai daiteke absoluzio-epai batekin, ez dagoe-lako behar beste froga prozesatutako pertsonaren erruduntasunari buruz, baita prozesuan izandako gabeziaren bategatik ere, horrek kondena-erabakia ematea eragozten baitu. Esate baterako, Auzitegi Nazionalak ETAko hiru buruzagi kondenatu zituen, egile gisa, 1992an Valentzian Manuel Broseta katedradunaren heriotza indutzeagatik. Halere, salak absolbitu egin zituen huts eginiko hilketa-delitutik –polizia batek zauriak izan zituen, terroristek ihes egin ostean utzi zuten bonba-autoa desaktibatzen ari zela-. Kasu horretan, nahiz eta delitua frogatutzat ematen zen «argi eta garbi», inputatutako delitu hori Frantziak emandako «estradijio-dekretuetatik kanpo» zegoen. Hortaz, absoluzio-epaiaren arrazoia ez zen izan behar beste froga ez edukitzea, baizik eta prozesu-mekanismo batek huts egin izana (estradijioak). Polizia Nazionaleko kideak, bigarren atentatuaren biktimak, bide bakarra du jasandako kalteak egiaztatzeko: kalte-ordainen aurrerakina eman zioten ebazpen administratiboak. Izan ere, epaiak ezin izan zuen eman inolako erabakirik delitutik eratorritako erantzukizun zibilaren alorrean, absolbitu egin baitzituzten prozesatuak. Kasu horretan, argituta dago atentatuaren erantzuleei dagokiena, baina ez da kondenarik izan atentatu horregatik.

Azterlan honetan, tankera bereko beste egoera bat topatu zen, Ángel Postigo Mejías jaunaren heriotzarekin lotuta emandako epaiarekin (ikus laburpen-taula).

### **3) Behin betiko largesteko autoak dituzten atentatu terroristak**

Prozedura penalak epaiatz bestelako ebazpen judizialekin ere amai litezke. «Behin betiko largesteko autoak» dira horiek.

Prozedura Kriminalaren Legearen 637. artikulua jasotzen duenez, erabaki hori hartu behar da:

1. Auzia eratzea eragin duen egitatea gertatu izanaren zantzu arrazoizkorik ez denean.
2. Egitatea delitu ez denean.
3. Egile, konplize edo estaltzaile gisa auzipetuak erantzukizun kriminaletik salbuetsita agertzen direnean.

### **4) Behin-behineko largesteko autoak dituzten atentatu terroristak**

Hainbat atentatu terroristaren ikerketa edo argipena epai-forma ez duten erabakien mende geratzen da, edo behin betiko largesteko autoen forma ez duten erabakien mende. Egoera horiek, hainbatetan, anomalo samarrak izaten dira, eta eragiten dute ikerketa paralizatzea edo behin betiko bertan behera uztea. «Behin-behineko largespenaren kasuak» dira horiek.

Prozedura Kriminalaren Legearen 641. artikulua jasotzen duenez, «behin-behineko largespena» ematea dagokio:

1. Auzia eratzea eragin duen delitua gertatu zela behar bezala egiaztatuta geratu ez denean.
2. Sumariotik delitua egin dela ondorioztatu arren arrazoi nahikoa ez dagoenean pertsona jakin bat edo batzuk egile, konplize edo estaltzaile gisa akusatzeko.

**5) Ikerketa judizialaren euskarri dokumentala suntsiturik daukaten atentatu terroristak**

Ikerketa judiziala behin betiko bertan behera uzteak muturreko modalitatea hartzen du espedienteak suntsitzea erabakitzen denean. Epailearen erabakiz, suntsitu egiten dira espedienteak baldin eta, haien antzinatasuna dela eta, ikertzeko aukera efektiborik gabetzat jotzen bada. Egoera horri «garbitzea» edo «espurgatzea» deitzen zaio. Nafarroan, ez da topatu ustezko garbiketa-kasurik.

**6) Talde edo egile jakinen batek aldarrikatu edo hari egotzi gabeko atentatu terroristak**

Atentatu terroristen egiletza aldarrikatzea izan ohi da ETA, Al Qaeda, Estatu Islamiarra eta tankera horretako taldeen izu-estrategietako bat. Hainbat bitarteko baliatzen dituzte horretarako; prentsa-oharrak edo bideoak, kasu. Adierazpen horiekin, Segurtasun Indar eta Kidegoek eta administrazioak ziurtasun handiko zantzu bat izaten dute atentatuaren egileei buruz. Horrek ikerketa-lerro nahiko fidagarriak ematen ditu, eta are erantzukizunak zehatz-mehatz ondorioztatzea ere.

Dena dela, izaten dira erruztatzeko edo errebindikatzeko adierazpenik ez duen ekintza terroristak ere. Ekintzaren izaera zehazteko, bestelako froga batzuk izan behar dira kontuan, eta ez dira beti erraz eskuratu. Har dezagun, konparazio batera, Manresan 1999an izandako erretiratu baten hilketa, bolborazko lehergailu batek Salouko hondartza batean eztanda egin zuenean. Ez zuen inork sekula errebindikatu atentatu hura, eta, aurrez, bi komunikatu anonimo helarazi zizkioten udalerrri hartako Turismo Patronatuari: ordainketa bat dirutan egin ezean hondartzetan lehergailuak ipintzeko mehatxua egiten zuten. Gobernuak Gurutze Handia eman zion hildakoari (Terrorismoaren Biktimentzako Aitortza Zibilaren Errege Ordena); izan ere, prozedura judizialik ez izateak ez du eragozten prestazioak aitortzea, izan kalte-ordainak, laguntzak edo kondekorazioak.

**7) Ezinbesteko laguntzaile edo konplizeak bakarrik kondenatzen diren atentatu terroristak**

Berezia da azkeneko kasu hau; izan ere, kondena-epai bat izanik, ez baita biltzen «argitu gabeko» kasuen barruan. Halere, badira atentatuari buruzko alderdi garrantzitsuak zehaztu edo frogatu gabe geratzen direnak.

Hemen, auzitegiak hainbat pertsona jo ditu erantzule penaltzat, ezinbesteko laguntzaile edo konplize gisa. Ez dira identifikatu edo kondenatu beste egileak (ekintza exekutatu edo induzitu zutenak). Auzitegiak zigortzeko kondena-epaia ematen du, eta delitutik eratorritako erantzukizun zibilari buruzko epaiak ematen dira. Horrenbestez, biktimak aitortzen dira epaian, sortutako kalteak eta galerak ordaintzeko eskubidearekin.

Ebatzi gabeko atentatu terroristei buruz egin izan diren zerrendetan, baliteke kasu hauek bilduta ez egotea. Badagoenez kondena-epaiak biltzen dituen epai irmo bat, ebatzitako edo argitutako kasutzat hartzen da *a priori*. Halere, ez da horren modu baketsuan onartutako auzia. Badira bat ez datozen iritziak, edota «argitzearen auzia» xehatzen duten argudioak. Ulertzen da atentatu terrorista bat ez dagoela erabat argituta, ez dagoenean kondenarik hilketa terroristaren egile materialen edo induzitzaileen aurka. Ikerketa judizialek frogatu dute ezen, ahaleginak eta bi egiten direnean ere, egoera batzuek erraz lortzen ez diren froga-elementuak eskatzen dituztela alderdi hori egiaztatu ahal izateko (hau da, egile zuzena edo induzitzailea nor den zehazteko).

Horren adibide bat topatuko dugu *Agujeros del sistema. Más de 300 asesinatos de ETA sin resolver* liburuan, (Juanfer F. Calderín, 2014), Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak (COVITE) babes-tuan. Hala, «*Lasarte, biktima bati informazioa ezkututzen zuela onartu zion etakidea*» izeneko epigrafean, zera gertaberritzen da, Valentín Lasarte kondenatuak eta Consuelo Ordoñezek, ETAk hildako PPko zi-



negotziaren arrebak, 2012ko ekainaren 22an Arabako espetxean izandako topaketa. Testuaren pasarte batean, honako hausnarketa hau dago jasota: «Nahiz eta atentatu terrorista baten egile materialtzat jotzeak ez duen garrantzirik zigorrari dagokionez –espetxe-zigorrek berdinak dira akusatua ezinbesteko laguntzailetzat joz gero– Ordóñez sendiak sekula ez du ziur jakin nork egin zion tiro Gregoriori 9 milimetro parabellum kalibreko Browning HP-35 pistolarekin (...). Epaiaren arabera, ez dago egile materialik, ezinbesteko laguntzaileak baino ez. Lasartek, damutua eta agintarien ustezko kolaboratzailea bera, inoiz ez zuen esan nork ipini ote zuen zira gorri hura, García Gazteluk edo Carasatorrek (...)».

Horrenbestez, zigortzeko kondena-epaia izanik ere, esan daiteke atentatua ez dela behar bezala argituta geratzen, egile materialen kondenaarik ez izatearen ondorioz. Gertatutakoari buruzko egia jakitea, horrenbestez, oraindik ere behar bezala zehazteke dagoen kontua da.

### **C) LABURPEN GISA**

Amaitzeko, beste kontu bat gaineratu behar dugu. Prozesuen egoera desberdinen ondorioz (absoluzio-epaiak, behin-behineko largespena, behin betiko largespena, garbiketa eta abar), gai hau jorratu duten ikastunen sektore garrantzitsu batek (hala nola Carlos Fonseca, Enara Garro, Martín Pallín, Rodríguez Uribes) edota problematika honi buruz erabaki behar dutenek (Auzitegi Nazionaleko Fiskaltza eta Informazio Bulegoa, Herriaren Defendatzailea) hautatu dute sekula ez erabiltzea «argitu gabeko atentatu» edo «ebatzi gabeko atentatu» adierazpidea. Aldiz, prozesuen egoeraren arabera taldekatzen dituzte kasuak. Izan ere, deskriptiboagoak dira, teknikoagoak, eta hobeto egokitzen dira indarrean den legeriara.

Konparazio batera, Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren txostenak jasotzen duenez, «argitua terminoak lausotasun- eta anbiguotasun-arazoak ditu. Ez da kontzeptu tekniko-juridikoa». Hori dela eta, erabaki dute «biktimak zenbatestea (...) hilketa egozten zaion erakundearen arabera (...) eta kasuon egoera prozesalari buruzko zenbakizko datuak eskainita». Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren txostenean, kasuak eranskinetan zerrendatzea aukeratu da. Herriaren Defendatzailearen txostenean, «egileak identifikatzerik edo auzipetzerik izan ez den ekintza terroristak» esamoldea baliatzen da.

Nolanahi ere, horrek ez du galarazten biktimen elkarrekin eta fundazioek «argitu gabeko hilketak» moldea erabiltzea, egoera horiek identifikatzeko. Hemen azaldutako zehaztapenak ezin dira oztopo izan, lehen esan dugun moduan, biktimak bereziki kezkatzen dituen auzi bati heldu ahal izateko.

### 3. EGOERA PROZESALEK BIKTIMEN ESKUBIDEETAN DITUZTEN ONDORIOAK

Nazio Batuen Batzar Nagusiak biktimak babesteko eredu idealaren oinarriak ezarri zituen 60/147 Ebazpena onartu zuenean (*«Oinarrizko printzipioak eta gidalerroak, giza eskubideen nazioarteko arauen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa nabarmenak izan dituzten biktimek errekurtsioak ipintzeko eta erreparazioa eskuratzeko eskubideari buruz»*). Ebazpen horrek neurri-zerrenda zabal bat proposatzen du: itzulketa, kalte-ordaina, birgaitzea, gogobetetzea eta berriro ez errepikatzeko bermeak.

Esandako ebazpen horrek ezartzen duenez: «Pertsona bat biktimatzat joko da urraketaren egilea identifikatu, harrapatu, epaitu edo kondenatu izana gorabehera, eta edozein dela ere egilearen eta biktimaren arteko familia-harremana» (9. paragrafoa). Hala, nabarmentzen du «berehalako babes» eman behar dela, giza eskubidea urratu bezain pronto (atentatu terroristak), eta ez dela inoiz ere lotu behar biktimari eskainitako babes eta laguntza ikerketa- eta auzipetze-prozesuen arrakastarekin edo porrotarekin.

Terrorismoaren biktimei laguntza emateko Espainiako legeriak ere biltzen du printzipio hori, NBEren 2006ko ebazpenaren aurretik bildu ere. Gaur egun, berehala ematen zaie babes biktimei, edozer dela ere azken emaitza.

Horrenbestez, badirudi ez dagoela inolako loturarik prozesuen egoeraren eta biktimen babesaren artean, guztiek eskuratuko bailukete estaldura bera. Alabaina, hiru eskubide daude zuzenean loturik zigor-prozeduren arrakastarekin edo porrotarekin: justiziarako, erreparaziorako eta egiarako eskubi-deak, hain zuzen ere.

#### 3.1. JUSTIZIARAKO ETA KALTE-ORDAINERAKO ESKUBIDEA

##### A) JUSTIZIA

Terrorismoaren biktimek etengabe egiten dituzte justizia-aldarrikapenak. Eskabide hori zuzenbide-estatuaren oinarrizko printzipio bat da, funtsezkoa. Halaxe jasotzen du Osoko Babesaren Legearen hitzaurreak, aitortzen duenean justizia «oinarrizko eskakizuna» dela. Horrenbestez, terrorismoak eragindako prozedurak zer egoera prozesalean dauden jakitea eta zehaztea ere agintari publikoek beren gain hartu beharreko neurri zehatz bat da, krimen terroristen zigorgabetasuna galarazteko, halakoak zeinahi adierazpidetan gertatzen direla ere.

Terrorismoaren biktimak pertsonatu daitezke prozesu judizialean. Osoko Babesaren Legeak doako justiziaren onura ematen die (48. artikulua) biktima izatea eragiten dieten prozesu guztietan, zuzeneko edo zeharkako kausa izanez gero eta haien bitarteko ekonomikoak gorabehera. Halere, kontu jakina da gure historiako iragan hurbil samarrean apenas parte hartzen zutela zigor-prozesuetan: oso-oso gutxi edo ia batere ez. Egoera horrek, ordea, aurrera egin du; neurri handi batean, elkarte-mugimenduen, laguntzeko asistentzia-programen eta Auzitegi Nazionalen ezarritako informazio judizialeko mekanismoen bidez.

Terrorismoak eragindako sumarioak zer prozesu-egoeratan dauden jakitea lagungarri izango da –oraindik ere posible den kasuetan– biktimek aukera izan dezaten prozedura horietan pertsonatzeko eta parte hartzeko. Txosten honen xede diren atentatu terrorista batzuetan egiaztatu ahal izan denez, hildako pertsonen senitartekoak akusazio partikular gisa pertsonatu dira hainbat sumariotan. Beste hainbatetan, berriz, Terrorismoaren Biktimen Elkartearen (AVT) ordezkariak jarduten dute.



Nazio Batuen 60/147 Ebazpenak behin baino gehiagotan nabarmentzen du «urraketak modu efikaz, bizkor, oso eta inpartzalean ikertzeko betebeharra, eta, hala egokitzen denean, ustezko arduradunen kontrako neurriak hartzekoa, estatuko eta nazioarteko zuzenbidearekin bat» (3. paragrafoa). Halaber, adierazten du «estatuak ikertzeko obligazioa dutela, eta, behar beste froga izanez gero, urraketen ustezko arduradunak auzipetzeko, baita zigortzekoa ere, errudun joz gero».

Terrorismoak eragindako zigor-prozeduren egoera aztertzeak arrazoibide bikoitza du: biktimen aldarrikapen zuzen eta etengabea, eta estatuen betebeharra, arduradunen kontrako ikerketak abiarazteko eta neurriak hartzeko.

Ikertzeko eta neurriak hartzeko betebeharrak hori Auzitegi Nazionalak hartzen du bere gain, bai eta hari atxikitako Fiskaltzak ere. Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak egin dezakeen ekarpenak irismen mugatua du oso, kontuan hartuta Estatuak duela erabateko esku-mena justiziaren arloan (Espainiako Konstituzioaren 149.1.5 artikulua). Hori horrela izanik, txosten honen helburuek eta asmoek ezin dituzte gainditu erakunde autonomikoari emandako funtzioak, eta haien helburu espezifiko bakarra da «iragana argitzea, justizia eta egia aintzakotzat hartuta».

## **B) KALTE-ORDAINAK**

Nazio Batuen 60/147 Ebazpenak ezartzen du, era berean, «kalte-ordaina egokiro eman behar dela, modu proportzionalan urraketa larritasunarekin eta egoera bakoitzeko inguruabarrekin, eta ekonomikoki ebalua litezkeen kalte guztiak kontuan izanik (...): a) kalte fisikoa edo mentala; b) aukerak alferrik galdu izana, bereziki enpleguarekin, hezkuntzarekin eta gizarte-prestazioekin lotuak; c) kalte materialak eta diru-sarreraren galerak, lortu gabeko irabaziak barnean hartuta; d) kalte moralak; e) laguntza juridikoak edo adituenak, sendagaiek, zerbitzu medikoek eta zerbitzu psikologiko zein sozialek eragindako gastuak».

«Ohiko araubidea» izenekoaren arabera, 1999ra arte zenbateko jakineko kalte-ordainak ematen ziren; asistentzia-arauetan zeuden ezarrira zenbateko horiek. Urte hartako urriaren 8an, ordea, 32/1999 Legea onartu zuten, terrorismoaren biktimenganako elkartasunari buruzkoa, «ezohiko araubide» izenez ezagutua. 2011n, osoko babesaren Legeak bi sistemak batu zituen, baina eutsi zion elkartasunari buruzko legearen mekanismoari, hau da, kalte-ordainak bi unetan ordaintzeari: lehenik eta behin, ordaintzeta aurreratua, atentatuaren ostean, eta, bigarrenik, kondena-epaian zehaztutako zenbatekoak ordaintzea (ahozko epaiketa eginez gero). Asmo horrekin onartu ez bazuten ere, sistema horrek desberdintasunak eragin ditu biktimen artean; hain zuzen, kalte-ordaina kondena-epaiaren bidez eskatzen dutenak, bate-tik, eta legezko baremoaren arabera eskatzen dutenak, bestetik.

Kausa lotuta dagoenez atentatu terroristen egoera prozesalarekin, zigortzeko kondena-epaia duten atentatuen biktimek epaileek zehaztutako zenbatekoa jasoko dute (betiere lege-muga baten barruan). Zigortzeko kondena-epaia ez den kasuetarako, berriz, legezko baremo bat aplikatuko da. Azken zenbateko horiek apalagoak dira kondena-epaietan ezartzen direnak baino.

Hori dela eta, terrorismoak eragindako zigor-prozedurak zer egoeratan dauden jakiteak eragin berezia du biktimen erreparaziorako eskubidean. Absoluzio-epaiak edo behin betiko largesteko autoak izan dituzten prozesuetako biktimek zenbateko minimoak jasotzen dituzte erreparazio gisa. Horrek konparaziozko bidegabekeriak eragiten ditu, eta birbiktimizazio-iturri bat da. Ez da erraz ulertzekoa gertakari berdinek (esaterako, hilketa terrorista batek) erantzun desberdina jasotzea Estatuaren aldetik, kalte-ordainei dagokienez. Terrorismoaren biktimek berdintasun-printzipioa bermatuko duen trataera eskatu dute, indar handiz eta arrazoi funtsatuekin, ez dadin inola ere gertatu erantzun desberdinak ematea antzeko kasuetan.

### 3.2. EGIARAKO ESKUBIDEA

Egiarako eskubideak ere dimentsio bikoitza du. Alde batetik, biktimen beharrian bat da zer gertatu den jakitea. Eta, bestetik, agintaritzaren publikoaren egitekoa da, Osoko Babesaren Legearen hitzaurreak jasotzen duen moduan.

#### A) EGIARAKO ESKUBIDEA ARAUTZEA

NBEren 60/147 Ebazpenaren gogobetetze-neurrien artean dago gertakariari buruzko egia jakiteko eskubidea. Zer gertatu den, zer kausak eragin duten eta eskubideak zer baldintzatan urratu ziren jakiteak lotura du justiziarako eskubidearekin, bai eta memoria indibiduala eta kolektiboa eraikitzearekin ere.

NBEren ebazpenak gomendatzen du «gertakariak egiaztatzea eta egia osorik jendaurrean jakinaraztea, baldin eta egia adierazteak ez badu are kalte handiagoa eragiten edo ez badie mehatxu egiten biktimaren, senitartekoen, lekukoen eta biktimari laguntzeko edo urraketa gehiago eragozteko esku hartu duten pertsonen segurtasunari eta interesari» (22. paragrafoa, b) tartekia). Neurri hori indartu egiten da «informazioa eskatzeko eta eskuratzeko eskubidearekin, jakiteko zein izan diren biktimizazioaren kausak, zein izan diren giza eskubideen nazioarteko arauen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa nabarmenen kausak eta baldintzak, eta zein den, halaber, urraketa horiei buruzko egia» (24. paragrafoa).

Osoko Babesari buruzko Legearen hitzaurrean, egia aitortzen da araudi osoaren inspirazio-printzipio edo «indar-ideia» gisa. Nabarmentzen duenez, botere publikoak arduratuko dira «bermatzeaz (...), euren eskumenen esparruan, ez dela gertatzen biktimekiko egoera bidegaberik edo babesgabeziakorik. Zehazki, krimen terroristen zigorgabetasunaren aurka lan egingo dute, nolana hikoak direla ere, eta kontu hartuko dute terroristek osorik betetzen dituztela zigorrak, zigor-arloko legeriak ezarritakoarekin bat».

Era guztietako egileen partaidetza gutxietsi gabe (biktima, ordezkatzeko dituzten kolektiboak, gizarte zibila eta abar), agintaritzaren publikoaren erantzukizuna da egia bilatzea, eta lagundu behar du egiaren berri izaten, «biktimizazio-kausa errealei erreparatuta eta gertatutakoari buruzko kontakizunari lagunduta, alde batera utzita distantziakidetasun moralak edo politikoak, anbiguotasunak edo balorazio-neutraltasunak. Halaber, argi eta garbi jaso behar du badirela biktimak eta badirela terroristak, nork jaso duen kaltea eta nork eragin duen, eta, amaiera bat laguntzea zeinean biktimek babesari eta errespetua sentitu behar baitituzte, terrorismoaren eta terroristen inolako justifikaziorik gabe».

Horrenbestez, botere publikoek mandatu espezifiko bat dute, proaktiboa, terrorismoaren biktimen justizia- eta egia-nahiak berma daitezen zuzenbide-estatuaren esparruan. Haiek sustatzen eta ezartzen jardungo du Estatuaren Administrazio Orokorra, baita eskudun diren beste administrazio publiko batzuek ere.

Administrazioon artean, autonomia-erkidegoak ditugu, osasunean, hezkuntzan, etxebizitza-kontuetan, enpleguan eta tankerako gaietan eskumena dutenak. Osoko Babesaren Legeak ekimen jakinak antolatzen gonbidatzen ditu, osoko babesaren helburua lortzen begira. Autonomia-erkidegoetako erakunde publikoek osatu ere egin ditzakete Estatuak hartutako neurriak, erreparazioari, gizarte-babesari eta aitorpenari dagokionez. Ildo horretan, autonomia-erkidego batean baino gehiagotan onartu dituzte terrorismoaren biktimak babesteko, laguntzeko eta aintzatesteke lege espezifikoak, hala nola Andaluzian, Aragoian, Gaztela eta Leonen, Extremaduran, Errioxan, Madrilan, Murtzian, Nafarroan, EAEn eta Valentzian.

Terrorismoaren biktimek justiziarekin lotuta egiten dituzten aldarrikapenak ez dira autonomia-erkidegoek erantzutekoak; izan ere, Espainiako Konstituzioak Estatuaren esku uzten du justizia-administrazioaren alorreko eskumen eksklusiboa (149.1.5 artikulua). Hala ere, muga horrek ez du galarazten bestelako proiektuak, azterketak, jardunaldiak edota askotariko babes- eta errefortzu-neurriak ezartzea egitarako eta justiziarako eskubidearekin loturik. Neurri horiek laguntzen dute gertatutakoa jakiteko asmoak indartzeko; gertakariak ikertzen ikuspegi historikotik abiatuta, iragana argitzen lagunduko duten azterketak eta analisiak egiten, zeinek bere eskumenen esparruan. Horrek guztiak kontakizun bat eraikitzen lagunduko du, indibiduala eta kolektiboa, terrorismoaren biktimen memoria eraikitzeko eta gordetzeko.

Alde horretatik, Nafarroako Foru Komunitatearekin lotutako atentatu terroristek eragindako zigor-prozedurak zer egoeratan dauden jakitea, neurri handi batean, lagungarri izango da egiarako eskubidea errealitate bilaka dadin. Sumarioak, epaiak eta emaniko bestelako epai judizialak aztertzeak balio ukaezineko datuak eskaintzen ditu, benetan gertatutakoaren errealitaterantz jotzeko, nahiz eta ez hori izan berariazko xedea.

## B) EGIARAKO ESKUBIDEA ETA ZIGOR-PROZEDURAK

Zigor-prozedurek ez dute biltzen ekintzen egia osoa, ezpada prozesatutako subjektuei dagokienez frogatu ahal izan den zatia, zigor-tipikotasunaren printzipioarekin bat.

Epai judizialak zigor-prozesu baten esparruan ematen dira, egiteko jakin batzuk betetzen dituzte, eta lege-berme zorrotzak gorde behar dituzte. Prozedura Kriminalaren Legeak 299. artikuluan jasotzen duenez, «sumarioa dira epaiketa prestatzera bideratutako jardunak, delituak egin direla ikertu eta ageriarazteko egindakoak, betiere horren kalifikazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztiekin batera, bai eta delitugileen erruduntasuna ere, euren buruak eta haien diruzko erantzukizunak ziurtatuz». Ondorioz, sumarioek datu baliotsuak izaten dituzte gertatutakoaren egiari buruz, baina ez dute agortzen.

Halere, joera zabal samarra dago «zigortzeko kondena-epaia» eta «gertakarien egia» parekatzeko. Txosten honen hasieran, Hannah Arendt egileak 1963an idatzitako *Eichmann Jerusalem. Gaizkiaren hutsaltasunari buruzko azterlan bat* liburuaren pasarte batekin hasi dugu. Zigor-prozesuaren xedea gertakari jakin batzuk finkatzea da, pertsona bat haien erantzule ote den ala ez adierazteko; hau da, erabakitze delako pertsona horrek gertakari horiengatik erantzun behar ote duen, hala biktimei justizia egiteko. Hara hor zigor-prozesuaren helburu handietako bat.

Prozedura baten garapenean, atentatuei buruzko alderdi ugari agertzen dira. Zalantzarik gabe, informazio baliotsua biltzen dute, egiarako eskubide hori asetzeko aukera emanez. Baina ez dute biltzen egia osoa. Zigortzeko kondena-epaiek auzi jakin batzuk bakarrik hartuko dituzte; hau da, froga sinesgarrien bidez, erakusten dutenak pertsona bat erantzule dela, pertsona hori babesten zuen errugabetasun-presuntzioa hautsi delako. Sumarioetan, argitu gabeko xehetasunak geratzen dira, kausitzerik lortzen ez dutenak, ez argituta ez baieztatuta geratzen direnak. Finean, zigor-prozesuaren xedea zera baita, pertsona bat leporatzen zaizkion egintzen erantzule ote den ala ez adieraztea.

Epaiok zigortzekoak izanagatik ere, zigor-epaiak ez dira beti parte-hartzaile guztietara iristen. Gerta liteke egile exekutatzaileei ezartzea kondena (hau da, tiro egin eta hiltzen dutenei). Halere, inoiz gertatu da egile horiek sekula ez aurkitzea, polizia-kiko istiluetan hiltzea, edota oso konplexua izatea prozesatu guztiek izaten duten errugabetasun-presuntzioa suntsituko duen froga topatzea.

Beste kasu batzuetan, konplizeak kondenatzen dira: zaintza-lanetan jardun zutenak eta «helburuak markatu zituztenak»; euren ibilgailuak utzi zituztenak atentatuetarako edota etxebizitzak alokatu zituztenak hilketak prestatzeko. Epaietan, espetxe-zigorak ez ezik kalte-ordainak ere ezartzen dira erantzukizun zibilagatik. Atentatu horien biktimek kondena-epaia izango dute, eta prestazio handiagoak esku-ratzeko moduan izango dira (kalte-ordainak epaian finkatuta). Halere, atentatuari buruzko egia osoa ez da behar bezala zehaztuta geratzen zigor-prozesuaren esparruan. «Egoera honen alderdirik bitxiena» zera da, Barne Arazoetako Ministerioak, kalteak eta laguntzak kudeatzeko datu-baseetan, ziurrenik kasuok «atentatu ebatzitzat» emanak izango dituela; izan ere, biktimen aldeko erantzukizun zibila finkatzen duen ebazpen judizial bat izanik, iritziko dio delako atentatu horrek baduela egile erantzule bat.

Bestalde, zigor-prozesu horretako biktimek eurek ere eman dezakete argitutzat atentatua, zigortzeko kondena-epai bat izan dutelako eta, gutxienez, partaideetako bat zehaztu ahal izan delako. Agian, justiziarako eskubidea neurri batean aseta edukitzeak eragin dezake adostasuna zabaltea gertatutakoari buruzko egia-ra, nahiz eta egia hori partziala bakarrik izan eta benetan gertatu zenaren zati mugatu bat bakarrik bildu.

## 4. EGIARAKO ESKUBIDEARI BURUZKO GOMENDIOAK

Egia bilatzeko, honako hauxe iradokitzen du NBEren 60/147 Ebazpenak berak: 1) «gertakariak egiaztatzea» eta 2) «publikoki eta osorik» jakinaraztea (22. paragrafoa). Horrek botere publikoak behartuko lituzke neurri osagarriak ezartzera prozedura judizialean, gertakariak egiaztatu eta, ondoren, jakinaraz daitezten. Zigor-prozesua ez balitz efikaz suertatuko horretarako, biktimak asetzeko bestelako neurriak edo ekimenak aztertu beharko dira.

Gure ustez ezar litezkeen neurrien artean, honako hauek nabarmen lagunduko lukete eskubide hori bermatzen:


- gertakarien ikerketa-batzorde historikoak sortzeak;
- azterlan espezializatuek;
- datu-baseak osatzeak eta diseinatzeak;
- dokumentuak arakatzeko eta artxibo dokumental zehatzak prestatzeak;
- obra monografikoak idazteak eta argitaratzeak;
- irakaskuntza-jardunaldiak egiteak; eta
- biktimekin erreparazio-topaketak egiteak.

Ekimen horiek guztiek, gainera, biktimen eskubideei lagunduko liekete; alegia, «euren biktimizazioa eragiten duten kausei buruzko eta giza eskubideak urratzen dituzten kausei zein baldintzei buruzko informazioa eskatzeko eta eskuratzeko eskubideari, baita egia jakitekoari ere». Eskubide hori are sendoago geratuko litzateke, batetik, informazio judiziala izanda eta, bestetik, asetzeko bestelako ekimen eta neurrietatik eskuratutako informazioa jasota.

Nafarroako Gobernuo Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak ez ditzake bere gain hartu Auzitegi Nazionalaren eta Fiskaltzaren organoek erreserbatuak dauzkaten egiteko espezifikokoak, zigor-prozeduraren pean dauden gertakariak argitzeko lanetan; nolana ere, susta eta ezar ditzake bestelako ekimenak, gertatutakoa hobeto ezagutzera bideratuak, bere eskumen-esparruan biltzen diren mekanismoak baliatuz. Konparazio batera, zuzeneko enkarguaren edo diru-laguntza publikoen bidea erabilita (norgehiagoka-prozeduran), ikerketa historikoa susta daiteke, edota gizartean kontzientzia pizteko programak abiarazi, Nafarroako Foru Komunitatearekin lotutako atentatu terroristei buruzko azterketa-eta hausnarketa-jarduera zehatzak barnean hartuko dituztenak. Era berean, sor daitezke sumarioen eta zigor-prozeduren ezagutzari helduko dioten taldeak –ahal den neurrian, hainbat diziplinatakoak–, jarduteko aukerei buruzko proposamen zehatzekin. Eginbide judizialik abiaraztea posible ez balitz ere –ez prozesuarekin lotuta, ez teknikoki–, susta litezke jardunaldiak, ikastaroak edo topaketak, eta bidera daiteke, era berean, Nafarroan gertatutako atentatu terroristei buruzko analisi topiko luze-zabala. Inolako zalan-tzarik gabe, lagungarri izango da hori guztia egiarako eskubidea indartzeko.

## 5. ETA-K NAFARROAN EGINDAKO HILKETA TERRORISTEN EGOERA PROZESALAREN LABURPENA

### A) OINARRIZKO DATUAK



### B) ERABILITAKO TERMINO JURIDIKOEN GLOSARIO LABURRA

Laburpen-koadroa ulertzen laguntzarren, erabilitako termino juridikoen zerrenda labur bat jaso dugu, baliagarri izango delakoan irakurleak teknizismo bakoitzaren edukia ulertzeko.

**AMNISTIA:** 46/1977 Legeak eragindako prozedurei egiten die erreferentzia, zeinaren arabera, amnistiatuta geratuko dira: a) intentzio politikoko ekintza guztiak, edozein izan zela ere haien emaitza, mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseiko abenduaren hamabosta baino lehen egindako delitu eta falta gisa tipifikaturik badaude; b) izaera bereko ekintza guztiak, mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseiko abenduaren hamabostetik mila bederatziehun eta hirurogeita hamazazpiko ekainaren hamabostera bitartean eginak badira, eta intentzio politikoan, gainera, nabarmentzen bada askatasun publikoak berrezartzeko eragingarri bat edota Espainiako herrien autonomien aldarrikapena; c) aurreko letran jasotako intentzio eta izaera bereko ekintza guztiak, mila bederatziehun eta hirurogeita hamazazpiko urriaren seira artean eginak, betiere ez badute eragin indarkeria larririk pertsonen bizitzaren edo osotasunaren aurka.

**AUTOA:** ebazpen judizial bat da hura ere (epaileek erabaki garrantzitsuak hartzeko duten beste modu bat), baina auzi oso jakinak eta bereziak erabakitzeke baliatzen da. Adibidez: 1) ikertutako edo auzi-petutako pertsonen, erantzule zibilei, akusatzaile partikularrei edo eragile zibilei zuzenean eragiten dieten gorabeherak edo oinarrizko puntuak erabakitzeke; 2) epaitegiaren edo auzitegiaren eskumena erabaki behar dutenean; ezespina dagokion ala ez erabaki behar dutenean; probidentzien edo dekretuen kontrako errekurtsioak erabakitzean, espetxea edo behin-behineko askatasuna, froga bat onartzea edo ukatzea edota doako justizia-eskubideari buruz erabakitzean; edo oinarrizko eskubide bati eragitean; eta 3) azkenik, legeen arabera funtsatu beharreko gainerakoetan. Hau da, argudio juridikoetan oinarritutako erabaki bat izaten da, egoera oso zehatzak adosteko baliatzen dena.

**BEHIN BETIKO LARGESTEKO AUTOA:** autook ematen dira (epaileek hartzen dituzten erabakiak edo ebazpenak), 1) ez dagoenean zantzu arrazionalik, kausa eratzeko arrazoia eman duen gertakaria burutu izanarenik; 2) egintza ez denean delitu; 3) egile, konplize edo estaltzaile gisa ageri diren prozesatuek ez dutenean ageri erantzukizun zibilik.

**BEHIN-BEHINEKOZ LARGESTEKO AUTOA:** autook ematen dira (epaileek hartzen dituzten erabakiak edo ebazpenak) 1) ez dagoenean behar bezala justifikatuta kausa eratzeko arrazoibide izan den delitua egin izana; 2) sumarioak ondorioztatzen duenean delitu bat egin dela eta ez dagoenean behar beste arrazoi pertsona jakin bat edo batzuk egile, konplize edo estaltzaile gisa aitortzeko.

**EGILEA:** Zigor Kodearen arabera, egintza egiten duena, izan bere kabuz edo izan beste norbaitekin batera, hura instrumentu gisa baliatuz.

**KONPLIZEA:** egilea izan gabe, egintza gauzatzen kooperatzen du, aurretik edo aldi berean beste hainbat ekintza burututa.

**EZINBESTEKO LAGUNTZAILEA:** egiletzat hartzen da hura ere. Egintza bat burutzen kooperatzen dute; haien esku-hartzerik gabe, ez zen gauzatuko delako egintza.

**EBAZTEKE DAUDEN EGINBIDEAK:** egoera horretan, prozesu-egintza jakin batzuk egiteke edo emaitzak jasotzeko egoten dira, betiere ikerketa edo prozedura bat gauzatzeko aldiaren barruan.

**ESTALTZAILEA:** delitu bat egin izanaren berri edukita, eta egile edo konplize gisa esku hartu gabe, delitua burutu ondoren honelako moduren batean esku hartzen duen pertsona: 1) egileei edo konplizeei lagunduz, delituaren probetxu, produktu edo prezioaren onura jasoz, norberarentzako irabazi-asmorik gabe; 2) delitu bateko gorpua, bitartekoak edo erremintak ezkutatuz, eraldatuz edo baliogabekatuz, haiek aurkitzea galarazteko; 3) delitu baten ustezko arduradunei lagunduz agintarien edo haien agenteen ikerketa saihesten, edota haien bilaketa eta harrapaketatik erretiratuz, betiere Zigor Kodean araututako inguruabar jakin batzuk gertatzen badira.

**ERAGILEA:** hura ere egiletzat hartzen da; besteri egintza zuzenean exekutarazten diona.

**FROGA-URRITASUNA:** auzitegiak erabakitzen duenean praktikaturako frogak ez direla nahikoa prozesaturako pertsonen zigor-erantzukizuna aitortzeko.

**PRESKRIPZIOA:** delitua egin den unean indarrean den Zigor Kodeak finkaturako epea igarotzen denean, ikerketa-eginbideak gauzatu gabe, ulertuko da iraungi egiten dela zigor-erantzukizuna. Zuzenbide Penalean, instituzio juridiko horrek (preskripzioak) honako oinarri hau dauka: nahiz eta zigorra ezinbestekoa izan ordena juridikoa izateko eta gordetzeko, delitu bat egin ostean arrazoizko denbora bat igaro izanak erruduna zigortu gabe (epe horiek aldatu egingo dira, egintza bidegabearen eta delitua egin den unean indarrean den legearen arabera) zera eragiten du, zigorrak ez dituela betetzen prebentzio orokorreko bere xedeak; eta, are gehiago, zehapenaren birgizarteratze-xedearen kontrako ere izan liteke. Preskripzioa epaitegiek eta auzitegiek aitortu beharrekoa da.

**EPAIA:** epaitegiek eta auzitegiek ematen duten ebazpen judiziala (hau da, azken erabakia), auzi kriminala behin betiko erabakitzen dutenean. Izan litezke kondena-epaiak (epaitzak delitu nagusia eta harekin lotutakoak kondenatzean) edo absoluzio-epaiak (epaitzak edozer zigorretatik gabetzen duenean prozesatua, kasu guztietan aske utziz).

## **C) «ARGITZE JUDIZIAL MOTARI» ETA ATENTATUEN ARDURADUNEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK**

Berriro ere irakurleari eta, batez ere, datuotan interesaturik daudenei edukia ulertzen laguntzeko helburuarekin, erabaki dugu kategoria bat biltzea (argitze judizial mota bat), informazio didaktikoa eta praktikoa samarra emateko asmo hutsarekin.

Prozesuei buruzko Espainiako legerian, ez dago tankera horretako izendapenik edo sailkapenik. Argitalpen honetan bildu izanaren asmoa emandako datuak interpretatzen laguntzea bakarrik da (batez ere, prestakuntza juridiko espezializaturik ez daukatenekin pentsatuz):

- **Egileak zein diren argitzea:** atentatuaren egileak kondenatu direnean (eta, kasuren batean, eragilea eta ezinbesteko laguntzailea ere biltzen ditu).
- **Argitze partziala:** atentatuaren erantzule batzuk bakarrik kondenatu direnean; esate baterako, konplizeak, estaltzaileak edo ezinbesteko laguntzailea bakarrik.
- **Argitu gabea:** ez dagoenean epairik, edota absoluzio-epaia bakarrik eman denean (edozer kausa dela eta).
- **Argitu ezinekoa, Amnistia dela eta:** arduradunei Amnistiaren 46/1977 Legea aplikatu zaienean.
- **Izapidetzen:** prozeduran oraindik ere eginbideak gauzatzen ari direnean, gertaerak argitzeko.

Sailkapen horrekin batera, aintzat hartu beharko dira beti «Egiarako eskubidea eta zigor-prozedurak» izeneko atalean eskainitako gogoetak.



D) LABURPEN-KOADROA

	HILDAKOAREN IZENA	ATENTATUAREN DATA	ATENTATUAREN LEKUA		EGOERA PROZESALA	OINARRIA	NOLAKO ARGITZE JUDIZIALA (EGILETZA)
1	ELOY GARCÍA CAMBRA	1972KO ABUZTUAREN 29A	GALDAKAO	EUSKADI	Behin betiko largeteko autoa	46/1977 Legea, Amnistiarena	Ezin da argitu, Amnistiagatik
2	JOAQUÍN IMAZ MARTÍNEZ	1977KO AZAROAREN 26A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1979) Behin betiko largeteko autoa (2015)	Kondena-epaia hilketako konplizeari Preskribatua	Partez argitua
3	JOSÉ MANUEL BAENA MARTÍN	1978KO URTARRILAREN 11	IRUÑEA	NAFARROA	Behin betiko largeteko autoa (1999)	Preskribatua	Argitu gabea
4	MANUEL LÓPEZ GONZÁLEZ	1978KO MAIATZAREN 9A	IRUÑEA	NAFARROA	Absoluzio-epaia (1980)	Absoluzio-epaia hiru prozesaturi (froga nahikoa ez)	Argitu gabea
5	HELIODORO ARRIAGA CIAURRIZ	1978KO AZAROAREN 27A	VILLABONA	EUSKADI	Kondena-epaia eta absoluzio-epaia (1982)	Kondena-epaia konplize bati eta absoluzio-epaia beste prozesatu bati (ez zen egiaztatatu gertaeran parte hartu zuenik)	Partez argitua
6	FRANCISCO BERLANGA ROBLES	1979KO URTARRILAREN 2A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1982)	Kondena hiru atentatugileri	Egileak argitua
7	JESÚS ULAYAR LICIAGA	1979KO URTARRILAREN 27A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1980)	Kondena hilketaren bi egileri, konplize bati eta estaltzaile bati	Egileak argitua
8	PEDRO FERNÁNDEZ SERRANO	1979KO APIRILAREN 5A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1980)	Kondena hilketaren hiru egileri	Egileak argitua
9	CARLOS SANZ BIURRUN	1979KO URRRIAREN 8A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1987 eta 1991)	Bi kondena-epai hilketako bi konplizeri	Partez argitua
10	SEBASTIÁN ARROYO GONZÁLEZ	1980KO URTARRILAREN 8A	ALTSASU	NAFARROA	Epaia (1981 eta 1985) Behin betiko largeteko autoa (1999)	Bi epai: kondena-epaia konplize bati (zelatatzegatik) eta absoluzio-epaia bi prozesaturi (froga nahikoa ez) Preskribatua	Partez argitua
11 eta 12	JESÚS VIDAURRE OLLETA JOSÉ OYAGA MARAÑÓN	1980KO MAIATZAREN 1A	IRUÑEA	NAFARROA	Behin-behineko largeteko autoa, eta artxibatzeari (1980)	Egileak identifikatu gabe Kasua artxibatu egin zuen Iruñeko 1. Instrukzio Epaitegiak	Argitu gabea
13	JOSÉ ESPINOSA VISCARRET	1980KO MAIATZAREN 8A	DONOSTIA	EUSKADI	Behin-behineko largeteko autoa (1980)	Behin-behineko largetesia, egileak identifikatu ez direla eta	Argitu gabea



	HILDAKOAREN IZENA	ATENTATJAREN DATA	ATENTATJAREN LEKUA		EGOERA PROZESALA	OINARRIA	NOLAKO ARGITZE JUDIZIALA (EGILETZA)
14 eta 15	FRANCISCO RUIZ FERNÁNDEZ FRANCISCO PUIG MESTRE	1980KO MAIATZAREN 16A	GOITZUETA	NAFARROA	Epaia (1981 eta 1985)	Bi kondena-epai, hiru ezinbesteko laguntzaileri	Partez argitua
16	ÁNGEL POSTIGO MEJÍAS	1980KO EKAINAREN 15A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1987 eta 2002)	Bi kondena-epai: egileari eta indutzitzaileari, 2002ko epaiak absolutu egin zuen prozesatu bat, talde armatuari laguntzea bakarrik egiaztatu zelako, ez hilketa-delitua. Estradizioa emateak eragotzi egin zuen delitu frogatua epaitzea.	Egileak argituta
17	MIGUEL GARCIARENA BARAIBAR	1980KO AZAROAREN 27A	DONOSTIA	EUSKADI	Epaia (1986 eta 1990)	Bi kondena-epai bi egileri	Egileak argituta
18	JOSÉ LUIS RAIMUNDO MOYA	1981EKO MARTXOAREN 5A	DONOSTIA	EUSKADI	Epaia (1988)	Kondena-epaia bi egileri	Egileak argituta
19	JOSÉ LUIS PRIETO GARCÍA	1981EKO MARTXOAREN 21A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1987 eta 1991)	Bi kondena-epai hiru egileri eta konplize bati	Egileak argituta
20	VICENTE LUIS GARCERA LOPEZ	1982KO APIRILAREN 17A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (2004)	Kondena-epaia bi egileri	Egileak argituta
21	ÁNGEL PASCUAL MÚGICA	1982KO MAIATZAREN 5A	BILBO	EUSKADI	Behin-behinekoz largesteko autoa (1995) Fiskalaren idatzia, sumarioa eskatzeko (2015)	Egileak eta parte-hartzaileak ez daude identifikatuta Ministerio Fiskalak espediente eskatu zuen 2015-06-17an	Argitu gabea
22	DANIEL HENRÍQUEZ GARCÍA	1982KO EKAINAREN 3A	BILBO	EUSKADI	Behin-behinekoz largesteko autoa (1980)	Egileak eta parte-hartzaileak ez daude identifikatuta	Argitu gabea
23	RAFAEL VEGA GIL	1982KO EKAINAREN 5A	SANTURTZI	EUSKADI	Epaia (1984)	Kondena-epaia bi egileri	Egileak argituta
24	JUAN GARCÍA GONZÁLEZ	1982KO UZTAILAREN 4A	AURITZ	NAFARROA	Absoluzio-epaia (1988) Behin betiko largesteko autoa (2014)	Absoluzio-epaia akusatua bati (froga nahikoa ez) Preskribatua	Argitu gabea
25	ALBERTO TOCA ECHEVERRÍA	1982KO URRIAREN 8A	IRUÑEA	NAFARROA	Behin betiko largesteko autoa (2015)	Preskribatua	Argitu gabea
26	GREGORIO HERNÁNDEZ CORCHETE	1982KO URRIAREN 15A	LEITZA	NAFARROA	Epaia (1988)	Kondena-epaia ezinbesteko laguntzaile bati	Partez argitua

	HILDAKOAREN IZENA	ATENTATJAREN DATA	ATENTATJAREN LEKUA		EGOERA PROZESALA	OINARRIA	NOLAKO ARGITZE JUDIZIALA (EGILETZA)
27 eta 28	ANTONIO CONEJO SALGUERO FIDEL LÁZARO APARICIO	1983KO MAIATZAREN 28A	IRUÑEA	NAFARROA	Behin betiko largeteko autoa (2011)	Preskribatua	Argitu gabea
29	JESÚS BLANCO CERECEDA	1983KO EKAINAREN 27A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1986 eta 1996)	Bi kondena-epai hiru egileri	Egileak argituta
30	PABLO GARRAZA GARCÍA	1983KO ABENDUAREN 9A	ERREENTERIA	EUSKADI	Behin betiko largeteko autoa (1992)	Atentatugileak hil	Argitu gabea
31	JESÚS ALCOCER JIMÉNEZ	1984KO APIRILAREN 13A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1888, 1989, 1991)	Bi kondena-epai hiru egileri Kondena-epai bat ezinbesteko laguntzaile bati	Egileak argituta
32 eta 33	TOMÁS PALACÍN PELLEJERO JOSÉ VISIEDO CALERO	1984KO APIRILAREN 13A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1988, 1989 eta 1991)	Bi kondena-epai hiru egileri Kondena-epai bat ezinbesteko laguntzaile bati (1989)	Egileak argituta
34	JOSÉ LUIS OLLO OCHOA	1984KO MAIATZAREN 27A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1988, 1996, 2001 eta 2005)	Lau kondena-epai lau egileri Absoluzio-epai bat bi akusaturi (egitateak ez dira egotzitako delitua, eta froga nahikorik ez da)	Egileak argituta
35	DIEGO TORRENTE REVERTE	1984KO EKAINAREN 7A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1985 eta 1994)	Bi kondena-epai hiru egileri	Egileak argituta
36 eta 37	ALFREDO AGUIRRE BELASCOÁIN FRANCISCO MIGUEL SANCHEZ	1985EKO MAIATZAREN 30A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1987)	Kondena-epaia hiru egileri	Egileak argituta
38	MÁXIMO ANTONIO GARCÍA KLEINER	1985EKO MAIATZAREN 13A	DONOSTIA	EUSKADI	Epaia (1987 eta 2002)	Bi kondena-epai hiru egileri	Egileak argituta
39	JUAN ATARÉS PEÑA	1985EKO ABENDUAREN 23A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1987 eta 2011)	Kondena-epaia bi egileri eta konplize bati Absoluzio-epaia akusatu bati (froga nahikoa ez)	Egileak argituta
40	ENRIQUE MORENO ARGUILEA	1986KO MAIATZAREN 2A	DONOSTIA	EUSKADI	Epaia (1987)	Kondena-epaia hiru egileri	Egileak argituta
41	DANIELA VELASCO DOMÍNGUEZ DE VIDAURRTA	1986KO URRIAREN 25A	DONOSTIA	EUSKADI	Epaia (1991 eta 2003)	Bi kondena-epai hiru egileri	Egileak argituta

	HILDAKOAREN IZENA	ATENTATUAREN DATA	ATENTATUAREN LEKUA	EGOERA PROZESALA	OINARRIA	NOLAKO ARGITZE JUDIZIALA (EGILETZA)	
42	MARIA CRUZ YOLDI ORRADRE	1987KO URRIAREN 17A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1991 eta 2011)	Kondena-epai bat egileari. Epai berak absolbitu egin zuen beste akusatu bat (froga nahikoa ez) Beste epai bat absoluziozkoa (froga nahikoa ez)	Egileak argituta
43 eta 44	JOSÉ FERRI PEREZ ANTONIO FERNANDEZ ALVAREZ	1988KO ABUZTUAREN 21A	LIZARRA	NAFARROA	Absoluzio-epaia (1992)	Froga nahikoa ez	Argitu gabea
45	JULIO GANGOSO OTERO	1988KO URRIAREN 16A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1995)	Kondena-epaia hiru egileri	Egileak argituta
46	FRANCISCO ALMAGRO CARMONA	1990EKO EKAINAREN 3A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (1995)	Kondena-epaia egileari	Egileak argituta
47	JOSÉ LUIS HERVÁS MAÑAS	1990EKO EKAINAREN 25A	IRUNBERRIKO ARROILA	NAFARROA	Epaia (1992 eta 1993)	Bi kondena-epai. Bat egileari eta ezinbesteko laguntzaileari. Bigarren epaiak beste ezinbesteko laguntzaile bat kondenatu zuen.	Egileak argituta
48	EDUARDO LÓPEZ MORENO	1995EKO APIRILAREN 19A	ENDARLATSA	NAFARROA	Behin-behinekoz largeteko autoa Izapidetzen	Egileak eta parte-hartzaileak ez daude identifikatuta Eginbideak ebazteke	Izapidetzen
49	TOMÁS CABALLERO PASTOR	1998KO MAIATZAREN 6A	IRUÑEA	NAFARROA	Epaia (2003)	Kondena-epaia hiru egileri	Egileak argituta
50	FRANCISCO CASANOVA VICENTE	2000KO ABUZTUAREN 9A	BERRIOZAR	NAFARROA	Epaia (2004)	Kondena-epaia bi egileri	Egileak argituta
51	MANUEL GIMÉNEZ ABAD	2001EKO MAIATZAREN 6A	ZARAGOZA	ARAGOI	Izapidetzen	Eginbideak ebazteke	Izapidetzen
52	JOSÉ JAVIER MÚGICA ASTIBIA	2001EKO UZTAILAREN 14A	LEITZA	NAFARROA	Epaia (2011)	Kondena-epaia lau egileri	Egileak argituta
53	JUAN CARLOS BEIRO MONTES	2002KO IRAILAREN 24A	LEITZA	NAFARROA	Behin-behinekoz largeteko autoa (2003)	Egileak eta parte-hartzaileak ez daude identifikatuta	Argitu gabea
54 eta 55	BONIFACIO MARTÍN HERNANDO JULIAN EMBID LUNA	2003KO MAIATZAREN 30A	ZANGOZA	NAFARROA	Behin-behinekoz largeteko autoa (2005)	Egileak eta parte-hartzaileak ez daude identifikatuta	Argitu gabea
56	DIEGO SALVÁ LEZAUN	2009KO UZTAILAREN 30A	PALMANOVA	MALLORCA (BALEAR UHARTEAK)	Izapidetzen	Eginbideak ebazteke	Izapidetzen

## 6. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

1 Errege Lege-Dekretua, 1977ko urtarrilaren 4koa, Auzitegi Nazionala sortzekoa (BOE, 4. zk., urtarrilaren 5ekoa).

1/2000 Erregelamendua, uztailaren 26koa, auzitegien gobernu-organoei buruzkoa (BOE, 216. zk., 2000ko irailaren 8koa).

3 Errege Lege-Dekretua, 1977ko urtarrilaren 4koa, terrorismoaren gaiko jurisdikzio-eskumenari buruzkoa (BOE, 4. zenbakia, urtarrilaren 5ekoa).

9/2010 Foru Legea, apirilaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko Terrorismoaren Biktimei Laguntzekoa (NAO, 57. zk., 2010eko maiatzaren 10a).

21/1978 Errege Lege-Dekretua, ekainaren 30ekoa, talde edo banda armatuek egindako delituen inguruko neurriei buruzkoa (BOE, 156. zk., 1978ko uztailaren 1a).

29/2011 Legea, Terrorismoaren biktimei aitortpena eta osoko babesa ematekoa (BOE, 229. zk., 2011ko irailaren 23a).

46/1977 Legea, urriaren 15ekoa, Amnistiarena (BOE, 248. zk., 1977ko urriaren 17a).

AUZITEGI NAZIONALEKO FISKALTZA. *Informe actualizado de la Fiscalía de la Audiencia Nacional sobre causas penales con víctimas de terrorismo*. Erabilitako bertsioa ez dago sinatuta; baina adierazten du txostenaren sinatzailea Javier A. Zaragoza jauna dela, Auzitegi Nazionaleko fiskalburua. 2017ko urtarrilaren 16a.

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN OSOKO BILKURA. 2005eko irailaren 15eko erabakia, zeinaren bidez onesten baita 1/2005 Erregelamendua, jarduketa judizialen alderdi osagarriena (BOE, 231. zk., 2005/09/27).

CALDERÍN, JUANFER F. *Agujeros del sistema. Más de 300 asesinatos de ETA sin resolver*, Ikusargen Ediciones S.A.; 2014, 382 or.

DÍAZ GONZÁLEZ, FRANCISCO JAVIER. *Los delitos de terrorismo y la creación de la Audiencia Nacional (1977-1978)*, Universidad de Alcalá, in «La transición a la democracia en España», Artxibo-ikerketari buruzko Gaztela-Mantxako VI. Jardunaldien aktak, 2004, 5-6 or.

*El Mundo*, «'Pakito', 'Txelis' y José Luis Urrusolo, condenados por el asesinato de Manuel Broseta», 2003ko irailaren 23a.

*El País*, «Un guardia civil resulta herido al explotar un segundo artefacto en la playa de Salou», 1999ko otsailaren 22a.

*El Periódico de Aragón*, «Condecoración para las dos víctimas de la Terminal 4 y una de Salou en 1999», 2007ko apirilaren 21a.

FONSECA, CARLOS (erredakzioa eta koordinazioa); GARRO CARRERA, ENARA; MARTÍN PALLÍN, JOSÉ ANTONIO eta RODRÍGUEZ URIBES, JOSÉ MANUEL. *Informe sobre la situación procesal de los atentados perpetrados por organizaciones terroristas con resultado de muerte entre 1960 y 2014*, in «Compilación de documentos generados por el Gobierno Vasco en la Legislatura 2012- 2016 en materia de paz y convivencia». 2. tomoa: «Clarificación del pasado», Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetz Idazkaritza, 2014ko abendua, 31-103 or.

HERRIAREN DEFENDATZAILEA. *Estudio sobre los derechos de las víctimas de ETA. Su situación actual*. Defensor del Pueblo, Madril, 2016, 97 or.

LADRÓN DE GUEVARA PASCUAL, CARMEN. El derecho a la verdad de las víctimas del terrorismo. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusia, 2018ko ekaina, 62 or.

MARRODÁN CIORDIA, JAVIER eta FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, LAURA. *Informe víctimas del terrorismo en Navarra*. Nafarroako Gobernuo Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO PRESIDENTEAREN 23/2015 Foru Dekretua, 2015eko abuztuaren 10ekoa, Foru Komunitatearen departamentu-egitura ezartzen duena (NAO, 156. zk. - 2015eko abuztuaren 12a).

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. 60/147 Ebazpena, «Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urratze nabarmenen biktimek eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren bortxaketa larrien biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioa lortzeko printzipioak eta irizpideak».

TERRORISMOAREN BIKTIMEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEKO BULEGOA. «*Víctimas mortales reconocidas en Navarra*» eta «*Víctimas mortales reconocidas de origen navarro en otra Comunidad*». Nafarroako Gobernuo Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak egindako eskaerari buruzko txostena. Auzitegi Nazionala, 2017ko azaroaren 17a.

## **7. ERANSKINA.**

### **AZTERTUTAKO EBAZPENEN ZERRENDA**

#### **1) AUZITEGI NAZIONALAREN EPAIAK**

39/79 Epaia, 1979ko azaroaren 24koa, 2. Atalarena  
154/82 Epaia, 1982ko azaroaren 30ekoa, 1. Atalarena  
57/80 Epaia, 1980ko ekainaren 26koa, 1. Atalarena  
17/80 Epaia, 1980ko martxoaren 13koa, 2. Atalarena  
4/87 Epaia, 1987ko otsailaren 5ekoa, 1. Atalarena  
7/91 Epaia, 1991ko urtarrilaren 28koa, 1. Atalarena  
168/81 Epaia, 1981eko azaroaren 20koa, 1. Atalarena  
171/81 Epaia, 1981eko azaroaren 23koa, 1. Atalarena  
37/85 Epaia, 1985eko apirilaren 20koa, 1. Atalarena  
72/87 Epaia, 1987ko azaroaren 13koa, 3. Atalarena  
20/02 Epaia, 2002ko uztailaren 11koa, 3. Atalarena  
25/85 Epaia, 1985eko maiatzaren 28koa, 3. Atalarena  
33/90 Epaia, 1990eko maiatzaren 8koa, 3. Atalarena  
03/88 Epaia, 1988ko urtarrilaren 13koa, 1. Atalarena  
28/87 Epaia, 1987ko maiatzaren 22koa, 1. Atalarena  
27/91 Epaia, 1991ko ekainaren 4koa, 1. Atalarena  
24/04 Epaia, 2004ko ekainaren 30ekoa, 2. Atalarena  
33/84 Epaia, 1984ko maiatzaren 28koa, 3. Atalarena  
28/88 Epaia, 1988ko apirilaren 15ekoa, 3. Atalarena  
98/86 Epaia, 1986ko abenduaren 13koa, 3. Atalarena  
1/96 Epaia, 1996ko urtarrilaren 11koa, 3. Atalarena  
39/88 Epaia, 1988ko ekainaren 27koa, 2. Atalarena  
69/89 Epaia, 1989ko urriaren 3koa, 2. Atalarena  
47/91 Epaia, 1991ko urriaren 30ekoa, 2. Atalarena  
39/88 Epaia, 1988ko ekainaren 27koa, 2. Atalarena  
69/89 Epaia, 1989ko urriaren 3koa, 2. Atalarena  
47/91 Epaia, 1991ko urriaren 30ekoa, 2. Atalarena  
14/88 Epaia, 1988ko martxoaren 1koa, 1. Atalarena  
4/96 Epaia, 1996ko urtarrilaren 30ekoa, 1. Atalarena  
52/01 Epaia, 2001eko azaroaren 22koa, 1. Atalarena  
58/05 Epaia, 2005eko uztailaren 29koa, 1. Atalarena  
67/85 Epaia, 1985eko urriaren 31koa, 2. Atalarena  
45/94 Epaia, 1994ko ekainaren 13koa, 2. Atalarena  
55/87 Epaia, 1987ko urriaren 5ekoa, 3. Atalarena  
15/87 Epaia, 1987ko otsailaren 17koa, 3. Atalarena

24/02 Epaia, 2002ko uztailaren 22koa, 3. Atalarena  
 52/87 Epaia, 1987ko abenduaren 7koa, 1. Atalarena  
 34/87 Epaia, 1987ko ekainaren 30ekoa, 1. Atalarena  
 50/91 Epaia, 1991ko azaroaren 19koa, 1. Atalarena  
 35/03 Epaia, 2003ko irailaren 17koa, 1. Atalarena  
 40/91 Epaia, 1991ko abenduaren 26koa, 3. Atalarena  
 11/95 Epaia, 1995eko otsailaren 24koa, 2. Atalarena  
 12/95 Epaia, 1995eko martxoaren 1ekoa, 3. Atalarena  
 25/92 Epaia, 1992ko ekainaren 16koa, 3. Atalarena  
 49/93 Epaia, 1993ko abenduaren 16koa, 3. Atalarena  
 21/03 Epaia, 2003ko maiatzaren 20koa, 1. Atalarena  
 36/04 Epaia, 2004ko azaroaren 3koa, 4. Atalarena  
 30/2011 Epaia, 2011ko azaroaren 15ekoa, 4. Atalarena  
 141/82 Epaia, 1982ko abenduaren 3koa.  
 42/91 Epaia, 1991ko urriaren 2koa, 1. Atalarena.  
 5/88 Epaia, 1988ko otsailaren 15ekoa, 2. Atalarena.  
 47/11 Epaia, 2011ko irailaren 30ekoa, 1. Atalarena  
 47/2011 Epaia, 2011ko azaroaren 28koa, 3. Atalarena  
 20/92 Epaia, 1992ko maiatzaren 29koa, 3. Atalarena.

## **2) BEHIN BETIKO LARGESTEKO AUTOAK**

1978ko otsailaren 23ko Autoa eta 1979ko maiatzaren 28ko Autoa., 6/77 Sumarioa, 2. Instrukzio Epaitegia, Madril.  
 2015eko urriaren 27ko Autoa, 4/78 Sumarioa, 1. Instrukzio Epaitegi Zentrala (IEZ).  
 1999ko urriaren 25eko Autoa, 10/78 Sumarioa, 1. IEZ.  
 1999ko irailaren 28ko Autoa, 35/80 Sumarioa, 1. IEZ.  
 2014ko urriaren 22 Autoa, 22/83 Sumarioa, 2. IEZ.  
 2015eko Urriko Autoa, 82/84 Sumarioa, 4. IEZ.  
 2011ko urtarrilaren 25eko Autoa, 44/83 Sumarioa, 2. IEZ.  
 1992ko Apirileko Autoa, 42/84 Sumarioa, 5. IEZ.

## **3) BEHIN-BEHINEKOZ LARGESTEKO AUTOAK**

1980ko Abuztuko Autoa, 33/80 Sumarioa, 4. IEZ.  
 1995eko martxoaren 28ko Autoa, 93/82 Sumarioa, 5. IEZ.  
 1980ko Abuztuko Autoa, 79/82 Sumarioa, 4. IEZ.  
 1988ko Abenduko Autoa, 73/88 Sumarioa, 4. IEZ.  
 2003ko abenduaren 1eko Autoa, 18/03 Sumarioa, 2. IEZ.  
 2005eko apirilaren 4ko Autoa, 11/03 Sumarioa, 1. IEZ.

## **4) BESTE EBAZPEN BATZUK**

Auzipetze- eta berrirekitze-autoa, 2015eko azaroaren 10ekoa, 2/95 Sumarioa, 3. IEZ.  
 Sumarioa errebokatze autoa, 2017ko urtarrilaren 17koa, 04/01 Sumarioa, 1. IEZ.  
 DPA 186/2009, 4. IEZ.

